

SOCIAL POWER

2. deialdiaren oinarriak

GIZARTE ZIBILEKO ERAKUNDEEK ESKUBIDEAK DEFENDATU, BABESTU ETA SUSTATZEKO XEDEZ EGITEN DITUZTEN JARDUERAK FINANTZATZEKO

DEIALDIAREN HELBURUA	2
DEIALDIAREN AURREKONTU-ZUZKIDURA.....	2
PARTE HARTU DEZAKETEN ERAKUNDEAK	3
ERAKUNDEEN BALDINTZA EKONOMIKOAK, FUNTSAREN ARABERA.....	4
PARTE-HARTZEKO MUGAK AURREZ SOCIAL POWER PROGRAMAN FINANTZATUTAKO ERAKUNDEENTZAT	5
FINANTZAKETA ESKATZEKO BALDINTZAK.....	5
BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	6
ESKABIDE BAT HAUTAGARRIA EZ IZATEKO ARRAZOIAK	9
DEIALDIAN AURKEZTEKO EPEA.....	10
PROIEKTUEN IRAUPENA	10
AURKEZ DAITEZKEEN PROIEKTUEN KOPURUA	10
DEIALDIEN LEHENTASUN TEMATIKOAK	10
FINANTZA DAITEZKEEN JARDUERA MOTAK.....	12
FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK	13
NOLA ESKATU FINANTZAKETA.....	14
PROIEKTUAK NOLA EBALUATUKO DIREN	16
NORK EBALUATUKO DITU PROIEKTUAK?.....	18
EMAN BEHARREKO FINANTZAKETAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEA	18
NOLA HAUTATUKO DIRA PROIEKTUAK?.....	19
ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEAK ETA IKASKUNTZA	20
EMAITZA JAKINARAZTEA, ONARTZEA ETA FINANTZAKETA ORDAINTEA.....	20
GARDENTASUNA, ZUZENKETA ETA ALEGAZIOAK	20
ALDERDIEN KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK.....	21
FINANTZAKETA PROZESUAREN EGUTEGIA ETA DATA NAGUSIAK	23
SOCIAL POWER-I BURUZ	24
DEIALDI HONI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO	24
KONTAKTUA	24

DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburu orokorra da [EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko](#) giza eskubideak, askatasuna, elkartasuna, berdintasuna, justizia —genero-justizia barne—, giza duintasuna eta beste eskubide batzuk sustatzen laguntzen duten gizarte zibileko erakundeek garatutako ekimenak finantzatzea.

Zehazki, honako gai-agenda hauetako baten inguruko eskubideak zaintzen, babesten eta sustatzen laguntzen duten proiektuak finantzatuko dira:

- Enplegu duinerako eskubidea, bidezko produkzio-sare batean
- Gizarte-babeserako eta etxebizitzarako eskubidea
- Genero-justiziarako eta aniztasunerako eskubidea

Desberdintasunak eta diskriminazioa bereziki jasaten dituzten kolektiboekin (emakumeak, gazteak, migratzaileak, LGTBIAQ+ pertsonak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, gutxiengoak, etab.) logika intersektzionaletik lan egiten duten proiektuak lehenetsiko dira.

Erakunde eskatzaileak proiektuaren bidez lagundu nahi duen eskubideen agenda aukeratzea eskubidearen funtsezko elementua da. Eskubide-inprimakian eskubideen agenda bakarra hautatu ahal izango da, proiektua bigarren mailan beste eskubide-agenda batzuekin ere lotuta egon daitekeen arren. Proiektuaren lerrokatzearen ebaluazioa hautatutako eskubideen agendarekiko bakarrik egingo da.

DEIALDIAREN AURREKONTU-ZUZKIDURA

Deialdi honek 1.036.666,67 euroko zuzkidura du, 3 funtsetan banatuta, proiektu bakoitzeko finantzatu beharreko gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa duten tarteen arabera:

- 1 funtsa: Gutxi gorabehera 35 eta 37 proiektu artean finantzatuko dira, eta proiektu bakoitzak 7.000 eta 15.000 euro arteko dirulaguntza jaso ahal izango du.
- 2 funtsa: Gutxi gorabehera 15 eta 17 proiektu artean finantzatuko dira, eta proiektu bakoitzak 15.001 eta 30.000 euro arteko dirulaguntza jaso ahal izango du.
- 3 funtsa: Gutxi gorabehera 1 eta 2 proiektu artean finantzatuko dira, eta proiektu bakoitzak 30.001 eta 60.000 euro arteko dirulaguntza jaso ahal izango du.

Oxfam Intermónek funts bakoitzean finantzatuko diren proiektuen kopurua aldatzeko eskubidea izango du, jasotako proiektuen kopuruaren eta kalitatearen nahiz eskatutako zenbatekoen arabera.

PARTE HARTU DEZAKETEN ERAKUNDEAK

Irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioak eta kooperatibak, Espainiako lurraldean behar bezala erregistratuak eta beren jarduera bertan garatzen dutenak, alderdi politikoei lotu gabeak eta erlijio-konfesioekin loturarik ez dutenak. Haien jarduerak Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunean eta Europar Batasunaren Tratatuaren 2. artikuluan jasotako oinarritzko eskubideak eta balioak babestu eta sustatzera bideratuta egon beharko du. Deialdiak garrantzi berezia ematen die landa-eremuko edo hiri-eremuko oinarritzko erakunde txikiei.

Deialdi honen ondorioetarako, honako baldintza hauek aldi berean betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioak eta kooperatibak baino ez dira erakunde hautagarritzat joko:

- Irabazi-asmorik ez izatea; hau da, irabazi ekonomikoak zuzenean edo zeharka bazkideen, patronatuko kideen, gobernu-organismoetako kideen edo haiekin lotutako hirugarrenen artean banatzeko helbururik ez izatea. Nolanahi ere, lor daitezkeen emaitzak, soberakinak edo irabaziak erakundearen estatutuetan ezarritako helburuak betetzera bideratu beharko dira, betiere interes orokorreko edo gizarte-xedeetako helburuak izanik.
- Nagusiki merkataritza- edo enpresa-arlokoak ez diren eta irabazi-asmorik ez duten jarduerak egitea, hargatik eragotzi gabe helburu sozialak betetzera bideratutako jarduera ekonomiko instrumentalak edo osagarriak egitea.

Irabazi-asmorik gabeko kooperatibei dagokienez, horien barruan sartuko dira gizarte-ekimenekotzat, gizarteratzekotzat edo Estatuko edo autonomia-erkidegoko araudi aplikagarriaren arabera baliokidetzat jotzen diren kooperatibak. Halaber, onartu ahal izango dira, beren izendapen formala edozein dela ere, gizarte-ekimeneko edo gizarte-integrazioko kooperatiben ezaugarriak funtsean betetzen dituztela egiaztatzen duten kooperatibak. Horrelakotzat hartuko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten erakundeak:

- Irabazi asmorik ez dutenak, zentzu materialean.
- Soberakinik bazkideen artean zuzenean edo zeharka banatzea aurreikusten ez badute, edo itzulkiniei muga zorrotza ezartzen badiete eta itzulkin horiek irabazi-asmokoak ez badira.
- Beren emaitzak, nagusiki, interes orokorreko edo gizarte-izaerako helburuak betetzera bideratzen dituztenean.
- Oinarritzko eskubideak babesteko eta sustatzeko erabiltzen badira.

Kooperatibek beren irabazi-asmorik gabeko izaera frogatu beharko dute estatutuak eta gainerako ziurtagiriak aurkeztuz.

Deialdi honetatik kanpo daude ondoko entitate mota hauek:

- Merkataritzako erakundeak, beren forma juridikoa edozein dela ere.
- Enpresa- edo lanbide-erakundeak eta beste edozein erakunde, beren forma juridikoa edozein dela ere, baldin eta beren xede nagusia kideen interes ekonomiko edo profesionalak ordezkatzeko, defendatzeko edo sustatzeko bada.
- Sindikatuak. Deialdi honen ondorioetarako, sindikatutzat hartuko dira Askatasun Sindikalari buruzko 11/1985 Lege Organikoak arautzen dituen erakundeak, erakunde sindikalen erregistro publikoan sindikatu gisa erregistratuta daudenak. Hori dela eta, beren izenean "sindikatu" hitza sartu arren, elkarte edo fundazio gisa (eta ez sindikatu gisa) legez eraturik dauden eta ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituzten erakundeak aurkeztu ahal izango dira.
- Irabazi-asmorik gabekotzat formalki eraturik egon arren, praktikan aurreko paragrafoetan ezarritako irizpideekin bat ez datorren edozein erakunde.

ERAKUNDEEN BALDINTZA EKONOMIKOAK, FUNTSAREN ARABERA

Baldintza ekonomikoak betetzen direla egiaztatzeko, erakunde eskatzaileek azken hiru ekitaldi itxietako edozein aukeratu ahal izango dute. Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu aukeratutako ekitaldian urteko 200.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten edo 400.000 eurotik gorako ondare garbia duten erakundeek, beren diru-sarrerak edozein direla ere. Bi baldintza horiek beti ekitaldi berari buruz egiaztatuko dira.

Erakundeek diru-sarreraren baldintzak hauek bete behar dituzte funts bakoitza eskuratzeko:

1. funtserako baldintzak, 7.000 eta 15.000 euro arteko proiektuak finantzatzeko
 - Erakundeak 60.000 eurotik beherako edo horren pareko urteko diru-sarrerak izan beharko ditu, erakunde eskatzaileak aukeratutako azken hiru ekitaldi itxietako batean.
2. funtserako baldintzak, 15.001 eta 30.000 euro arteko proiektuak finantzatzeko
 - Erakundeak 60.001 eurotik 130.000 eurora bitarteko urteko diru-sarrerak izan beharko ditu, erakunde eskatzaileak aukeratutako azken hiru ekitaldi itxietako batean.
3. funtserako baldintzak, 30.001 eta 60.000 euro arteko proiektuak finantzatzeko
 - Erakundeak 130.001 eurotik 200.000 eurora bitarteko urteko diru-sarrerak izan beharko ditu, erakunde eskatzaileak aukeratutako azken hiru ekitaldi itxietako batean.

Erakundeak eskabidea aurkeztu ahal izango duen funtsaren esleipena automatikoki egingo da, eskabide-galdetegian adierazitako diru-sarreraren arabera. Horregatik, ezinbestekoa da galdetegian adierazitako diru-sarrerak aurkeztutako egiaztagirir-

dokumentazioarekin bat etortzea. Dokumentazio hori aztertu ondoren egiaztatzen bada adierazitako diru-sarrerak ez daudela behar bezala justifikatuta eta erakundeak ez dituela betetzen esleitutako funtsaren diru-sarrerei buruzko baldintzak, eskabidea ez da hautagarritzat joko.

Hala ere, adierazitako diru-sarreraren eta aurkeztutako dokumentazioan egiaztatutako diru-sarreraren artean desadostasunak antzematen direnean, eta desberdintasun horiek eskabidea aurkeztu den funtsaren baldintzak ez betetzea badakarte, $\pm 5\%$ eko malgutasun-tartea aplikatuko da funts horretarako ezarritako diru-sarreraren muga gainean, bai gutxieneko muga, bai gehieneko muga. Aldea % 5etik gorakoa bada, eskabidea ez da hautagarritzat joko.

Deialdi honen ondorioetarako, erakunde eskatzailearen beraren diru-sarrerak baino ez dira kontuan hartuko, erakunde bere IFKren bidez identifikatuta. Ez dira kontuan hartuko erakundeak parte hartzen duen federazio, sare edo bestelako egiturei dagozkien beste diru-sarrera batzuk, baldin eta IFK desberdina badute.

PARTE-HARTZEKO MUGAK AURREZ SOCIAL POWER PROGRAMAN FINANTZATUTAKO ERAKUNDEENTZAT

Deialdi honetan ezingo dute finantzaketa eskatu aurreko deialdietan SOCIAL POWER finantzaketa jaso duten erakundeek.

Neurri horren helburua da erakunde gehiagok parte har dezaten bultzatzea, eta, hala, SOCIAL POWER programaren irismena eta finantza-laguntza jasotzen duten erakundeen kopurua handitzea. Muga hori, proiektuaren emaileak balioztatua (EB), SOCIAL POWER erakundeak aurrez finantzatutako erakunde guztiei aplikatzen zaie, garatutako proiektu-mota edozein dela ere, eta ez zaie aplikatuko Tejiendo Derechos (Eskubideak Ehunduz) Proiektuan finantzatutako erakundeei.

FINANTZAKETA ESKATZEKO BALDINTZAK

Finantzaketa-eskaera bat aurkezten duten erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera aurkezteko unean:

- Europar Batasunaren balioekin bat etortzea¹.
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa formalki eratuta egotea, modalitate hauetan: irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioa edo kooperatiba.
- Genero-justizia sustatzea.

¹ EBren balioak Europar Batasunaren Tratatuaren 2. artikuluan agertzen direnak dira: "Batasunak oinarritzko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta

emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan"

- Bere jarduerak Espainiako lurraldean garatzea.
- Deialdia argitaratzen den unean gutxienez urtebeteko esperientzia izatea Espainiako lurraldean Europar Batasuneko oinarritzko eskubideak eta balioak babestu eta sustatzeko esparruarekin lotutako jarduerak garatzen. Eskatutako esperientzia erakundea formalki eratu aurretik zein ondoren eskuratu ahal izan da, betiere jarduera jarraitua egiaztatzen duten dokumentuen bidez modu sinesgarrian frogatu badaiteke (memoriak, sortutako materialak, proiektuak gauzatu izanaren egiaztagiriak, komunikazio publikoak edo bestelako dokumentuak).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Erakundeak 200.000 eurotik beherako edo horren pareko urteko diru-sarrerak izatea eta bere ondarea 400.000 eurotik beherakoa edo horren parekoa izatea, erakundeak aukeratutako azken 3 ekitaldi itxietako batean.

BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Erakundeek, online eskabide-formularioarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko:

- ⇒ Erakundea dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, 2026ko martxoaren 1a baino geroago emandakoa.
- ⇒ Erakundearen estatutuen ziurtagiria, erakundea erregistratuta dagoen erregistroak emana, 2026ko martxoaren 1etik aurrera. Ziurtagiri hori izan ezean, erakundeak estatutuen kopia aurkeztu ahal izango du, administrazio eskudunak edo notarioak konpultsatuta, eta gerora egindako aldaketak ere bai, halakorik izanez gero.
- ⇒ Erakundearen legezko ordezkari(ar)en egiaztagiria, indarrean dagoena, dagokion erregistroak emandakoa, 2026ko martxoaren 1aren ondoren, edo, bestela, notario-eskritura, legezko ordezkaritza egiaztatzen duena; hala ere, aurrehautatua izanez gero, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du lankidetzatza-hitzarmena sinatu aurretik, 2026ko martxoaren 1en ondoren.
- ⇒ Erakundearen [erantzukizunpeko adierazpena](#):
 - ez dago porrot- edo kaudimengabezia-egoeran;
 - Ez du ustelkeria-, iruzur- edo kapital-zuritze delituengatik kondenarik jaso;
 - Ez da epai irmo baten bidez edo behin betiko administrazio-ebazpen baten bidez adierazi zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko kotizazio-betebeharrak ez dituela bete;
 - ez dago finantzaketa publikoa jasotzea eragozten duten zehapen edo zigorren menpe;
 - Ez du interes-gatazka garrantzitsurik eragiten;

Ondorio horietarako, baldintza horiek erakundeari, pertsona juridiko gisa, dagozkiola ulertuko da, haren kideen banakako egoera alde batera utzita, betiere egoera horrek erakundearen legez jarduteko gaitasunean eraginik ez badu.

⇒ Dokumentazio ekonomikoa:

Dokumentazio ekonomikoaren baldintzak, 1. funtsa

- Erakundearen urteko diru-sarrerei buruzko [erantzukizunpeko adierazpena](#), eskatzaileak aukeratutako azken hiru ekitaldi itxietako bati dagokiona.

Dokumentazio ekonomikoaren baldintzak, 2. eta 3. funtsa

- Sozietateen gaineko Zergaren 200 eredua, **erakunde eskatzaileak aukeratutako azken hiru ekitaldi itxietako bati dagokiona.**
- Erakundeak Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko betebeharririk ez badu, urteko kontuak **aurkez ditzake (egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua barne)**, dagokion gobernu-organoak onartu eta sinatuta, **erakunde eskatzaileak aukeratutako azken hiru ekitaldi itxietako bati dagozkionak.**

[Esteka](#) honetan kontsulta dezakezu zein epigrafe hartuko diren kontuan diru-sarreraren kalkulua egiteko, bai 200 ereduan, bai urteko kontuetan. Kalkulu horretarako, ez dira kontuan hartuko emandako baina ekitaldiko emaitzari egotzi gabe dauden dirulaguntzak; hau da, egoera-balantzean emaitzetara eramateko zain dauden dirulaguntza gisa agertzen direnak, eta ez aukeratutako ekitaldiko galera-irabazien kontuan jasotzen direnak.

Ez dira kontuan hartuko ezohikoak edo behin-behinekoak diren diru-sarrerak, besteak beste honako hauek barne hartuta: ibilgetua saltzeagatiko irabaziak, jasotako kalte-ordainak, kanbio-tasaren aldeko aldeak eta erakundearen ohiko jardueratik kanpoko beste edozein diru-sarrera.

Hiru funtsetako edozeinetako erakundeek, beren ondare garbia 400.000 eurotik gorakoa bada, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, diru-sarreraren maila edozein dela ere. Ondorio horietarako, 200 ereduan aurkeztutako egoera-balantzearen 00185 laukia hartuko da kontuan, hala aurkeztuz gero; eta, bestela, erakundeak aurkeztutako egoera-balantzean adierazitako ondare garbiaren guztizko zenbatekoa.

Erakundeak aurkeztutako finantza-informazioaren koherentzia bermatu beharko du Dokumentuen artean desadostasunik egonez gero, 200 eredua

nagusituko da, eskuragarri dagoen kasuetan. Zalantzarik izanez gero, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango da.

- Betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten Zerga Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eta, hala badagokio, **dagokion erkidegoko zerga-administrazioarenak.**
- Erakundearen izenean dagoen banku-titulartasunaren ziurtagiria.
- Erakundearen jardueren azken memoria **edo, bestela, erakundeak azken urtean egindako jarduerari buruzko bestelako dokumentazioa.**
- Erakundearen kudeaketari buruzko beste dokumentu garrantzitsu batzuk (aukerakoa 1. eta 2. funtsetarako, nahitaezkoa 3. funtserako) Entregatutako barne-kudeaketari buruzko dokumentua lotuta egon daiteke osotasunarekin edo gardentasunarekin, besteak beste. Adibide gisa —nahiz eta aurkeztu beharreko dokumentuak nahitaez hauek izan behar ez duten—, honako hauek aurkez daitezke: erakundearen jokabide-kodea, kode etikoa, berdintasun-plana, erakundearen auditoretzak, haurrak babesteko protokoloa edo politika, edo, bestela, erakundearen kudeaketa edo barne-kudeaketako mekanismoak egiaztatzen dituen antzeko beste edozein dokumentu. Adingabeekin zuzenean lana aurreikusten duten proiektuen kasuan, erakundeak haurrak babesteko protokolo edo politika bat duela egiaztatu beharko du, eta dokumentazio hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko du.
- Gutxienez urtebeteko jarduna duela adierazten duen [erantzukizunpeko adierazpena](#), dagokion egiaztagiriekin batera. Deialdia argitaratzen den unean dagokion erregistroan urtebete edo gehiago inskribatuta ez daramaten erakundeek baino ez dute dokumentu hori aurkeztu beharko.

Erakunde eskatzailea aurrez hautatua izanez gero, eta aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo zuzentzea behar badu, erakundeari dokumentazio hori osatzeko edo zuzentzeko eskatuko zaio, ezarritako epearen barruan.

Deialdi honen esparruan aurkeztutako bestelako dokumentazio osagarria ez da kontuan hartuko proiektuen ebaluazio-prozesuan proposamenen ebaluazio teknikoa egiteko.

Erakunde eskatzailea izango da eskabide-formularioan, aurkeztutako dokumentazioan eta dokumentazioa zuzentzeko aldiak aurkeztutako edozein informazio osagarritan emandako informazio guztia egiazkoa izatearen erantzule. Emandako informazioa faltsua, zehaztugabea edo manipulatu dela antzemanaz gero, eskabidea ez da hautagarritzat jo ahal izango edo, hala badagokio, emandako finantzaketa baliogabetu ahal izango da, ez-betetze horretatik erator daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

Oxfam Intermónek eskubidea izango du deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentazio osagarri eskatzeko, baita erakunde eskatzaileak emandako informazioa zuzendu edo osatzeko ere. Erakundeak ez badu dokumentazio hori ezarritako epeetan aurkezten, edo dokumentazioa berrikusi

ondoren egiaztatzen bada ez dituela oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen, eskabidea ez da hautagarritzat joko.

ESKABIDE BAT HAUTAGARRIA EZ IZATEKO ARRAZOIAK

Oinarri hauetan zehar finantzaketa eskatzeko ezarritako baldintzez gain, ez dira hautagarritzat joko eta, beraz, ezin izango dira hautatu honako egoera hauetakoren batean erortzen diren eskaerak:

- Erakunde eskatzaileak ez ditu betetzen oinarri hauetan ezarritako baldintzak, bere izaera juridikoari, xedeari, jarduera-esparruari edo Europar Batasunaren balioekiko lerrokatze-mailari dagokienez.
- Erakunde eskatzaileak ez ditu betetzen eskatutako funtsean parte hartzeko ezarritako baldintza ekonomikoak (diru-sarrerak eta/edo ondarea), edo baldintza horiek ez dira behar bezala egiaztatzen aurkeztutako dokumentazioaren bidez.
- Adierazitako informazio ekonomikoaren eta aurkeztutako dokumentazioaren artean desadostasunak antzematen dira, eta desadostasun horiek funts bakoitzerako ezarritako mugak ez betetzea dakarte, deialdian zehaztutako $\pm 5\%$ eko malgutasun-tartea gainditzen dutenean.
- Erakundeak aurretik finantzaketa jaso du SOCIAL POWER deialdietan, oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera.
- Aurkeztutako proiektua ez da Espainiako lurraldean garatzen edo ez dator bat deialdian ezarritako iraupenarekin.
- Deialdian berariaz sartzen ez diren jarduerak sartzen dira proiektuan, hala nola auzibidezko ekintzak edo prozesu legal edo judizialak, edo erakundearentzat zuzeneko diru-sarrerak sortzeko jarduerak.
- Erakundeak ez du eskatutako dokumentazioa aurkezten, edo ez ditu ebaluazio-prozesuan zehar identifikatutako gabeziak zuzentzen ezarritako epeetan.
- Eskabidean, aurkeztutako dokumentazioan edo prozesuaren edozein fasetan emandako informazioan faltsutasuna, zehaztasun-falta edo manipulazioa antzematen da.
- Berariaz kanpo geratzen dira sindikatu forma juridikoa duten erakundeak, baita alderdi politikoak, elkargo profesionalak, enpresa-elkarteak eta kirol-federazioak ere.
- Oxfam Intermónek, hautagarritasuna baloratzeko orduan, erakundeak dimentsio handiagoko antolakuntza-egiturekin duen lotura aztertu ahal izango du. Baliteke hautagarriak ez izatea, nortasun juridiko propioa izan arren, tamaina askoz handiagoko erakundeen parte diren edo haiekin estu lotuta dauden erakundeak,

baldin eta erakunde horien baliabideak, egitura edo jarduteko gaitasuna modu adierazgarrian baliatzen badituzte, eta horrek deialdi honen helburua desitxuratzen badu, hau da, erakunde txikiak eta oinarritzko erakundeak babesteko ikuspegia.

DEIALDIAN AURKEZTEKO EPEA

Zure erakundeak deialdi honetan parte hartu nahi badu, eskaera-inprimakia bete beharko duzu azaroaren 2ko 17:00ak baino lehen (Espainiako penintsulako ordua).

PROIEKTUEN IRAUPENA

Proiektuek gutxienez 7 hilabeteko eta gehienez 10 hilabeteko iraupena izan beharko dute, 2027ko martxoaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartean.

AURKEZ DAITEZKEEN PROIEKTUEN KOPURUA

Gizarte zibileko ahalik eta erakunde gehienek finantzaketa eskura dezaten sustatzeko, erakunde bakoitzeko proiektu BAT baino ez da finantzatuko. Hori horrela, erakundeek proiektu BAKARRA aurkeztu ahal izango dute.

DEIALDIEN LEHENTASUN TEMATIKOAK

Lehentasuna izango dute deialdi honek barne hartzen dituen gai-agenden lehentasunetako bati, gutxienez, laguntzen dioten proiektuek:

Enplegu duinerako eskubidea, bidezko produkzio-sare batean arloari dagokionez, ekarpen hau egiten duten proiektuak lehenetsiko dira:

- **Langileen lan-eskubideen** urraketa identifikatzea eta salatzea..
- **Egoera ahulean dauden pertsonen** gizarteratzea eta laneratzea sustatzea, langabezian dauden pertsonen lagunduz, orientatuz eta/edo prestakuntza emanez, enplegua lortzen laguntzeko edo haien enplegagarritasuna hobetzeko.
- **Soldatapeko langileek edo autonomoek** sarean lan egiteko eta elkar laguntzeko espazioak sortzea, egoera bereziki prekarioan dauden kolektiboen artean enplegu duina lortzeko eskubidearekin aurrera egin ahal izateko, besteak beste, emakumeen, immigranteen edo ijito-herriko pertsonen kasuan.

- **Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonentzako lan-aukerak sortzea, enplegu egonkorra, segurua eta soldata duinekin, enplegu duina, ekonomia eta ekintzailatza soziala eta nitxo ekonomiko berrietako kooperatibismoa bultzatuz (adibidez, trantsizio berdea eta digitala, landa-enplegua edo zainketen ekonomia).**
- **Herritarrak sentsibilizatzea eta mobilizatzea justizia ekonomikoa sustatzeko, lan-prekarietatearen aurkako ekintza kolektiboa, lan-eskubideen eta enplegu duinaren sustapena eta langileen lan-eskubideen urraketa identifikatzea eta salatzea barne.**

Giza-babeserako eskubideari dagokionez, honako hauek lortzen lagunduko duten proiektuak lehenetsiko dira:

- **Diru-sarrerak bermatzeko politiketarako (IMV, autonomia-erkidegoetako errentak edo bestelako prestazioak) benetako sarbidea sustatzea, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen laguntza eta aholkularitza eskainiz, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko.**
- **Herritarrak sentsibilizatzea eta/edo mobilizatzea, eremu publiko eta politikoan eragiteko, gizarte-babeseko sistema unibertsala izan dadin eta kolektibo bakar bat ere atzean gera ez dadin.**
- **Etxebizitza-arloan zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak babesten laguntzen duten ekintzak sustatzea; besteak beste, etxebizitzaren prozesuetan laguntza ematea, etxebizitza-alternatibak bermatzen dituzten programak bultzatzea edo etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egiteko gizarte-laguntzak eskatzeko aholkularitza eskaintzea (alokairurako laguntzak, birgaitze-laguntzak eta abar).**
- **Etxebizitzaren krisiak eragindako kolektiboen parte-hartzea sustatzen duten komunitate-ekimenak indartzea, etxebizitza duinerako eskubidea bermatzen laguntzeko. Bereziki kontuan hartuko dira etxebizitzaren egoeraren inguruko analisia, mobilizazioa edo eragina barne hartzen duten ekintzak.**

Genero-justiziarako eta aniztasunerako eskubideari dagokionez, honako hauek lortzen lagunduko duten proiektuak lehenetsiko dira*:

** Lehenetsitako horien barruan sartzen dira emakumeen eta LGTBIAQ+ komunitateko pertsonen eskubideak defendatu, babestu eta sustatzea, ikuspegi feminista intersektionala, eta gorputzek zeharkatzen dituzten askotariko alderdiak eta desberdintasunak aitortzea, generoa, bere adierazpena, identitatea, sexu-orientazioak eta beste desberdintasun batzuekiko intersektzioak barne, besteak beste, klasea, arraza, egoera administratiboa, jatorria, aniztasun funtzionala edo adina.*

- Indarkeria patriarkala prebenitzea eta aurre egitea, **eta genero-indarkeria guztien biktimak defendatzea eta babestea.**
- Kolektibo, mugimendu eta/edo erakunde feministen parte-hartzea sustatzea erabakiak hartzeko gune eta prozesuetan, maila guztietan (tokikoan, autonomia-erkidegokoan eta/edo estatukoan), eta politika feministak bultzatzeko duten eragina indartzea; horren barruan sartzen dira berdintasuna eta LGTBIAQ+ pertsonen eskubideen defentsa eta babesa..
- Emakumeen eta LGTBIAQ+ pertsonen eskubideen aurkako diskriminazioaren eta gorroto-diskurtsoen eta narrazioen gorakadaren aurka borroka egitea.
- Gizartean sexu- eta genero-aniztasuna ikusaraztea eta garrantzia ematea sustatzea, **LGBTIQfobia prebenitzeko eta sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberako diskriminazioaren, indarkeriaren eta bazterkeriaren aurka egitea.**

FINANTZA DAITEZKEEN JARDUERA MOTAK

Garrantzitsua da kontuan hartzea deialdi honen bidez egindako jarduerak Espanian garatu beharko direla.

Jarraian, finantza daitezkeen jarduera motak zehazten dira:

- Politika publikoetan eragina izateko herritarren partaidetzarako eta eskubideen defentsarako ekintzak eta jarduerak.
- Kolektiboetako zuzeneko arreta ematea eta doako aholkularitza-zerbitzuak ematea.
- EBko eskubide eta balioei buruzko sentsibilizazioa (giza duintasunarekiko, askatasunarekiko, demokraziarekiko, zuzenbide-estatuarekiko eta giza eskubideekiko errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak eta berdintasuna barne, genero-berdintasuna barne)
- Politikak ikertzea eta aztertzea edo monitorizatzea, estatu-mailako eta EBko politika publikoen formulazioan eragiteko edo informatzeko.
- Legeak, araudiak edo hartutako ebazpen judizialak aplikatzen eta ezartzen laguntzeko ekintzak.
- Proiektua zuzentzen zaien taldeentzako eta kolektiboentzako laguntza psikosozialeko zerbitzuak eta autozaintzako eta zaintza kolektiboko ekintzak.
- Genero-justizia ikuspegi eraldatzaileetatik sustatzen duten ekintzak
- Plataformak eta elkarriketa zibikoak antolatzea eta koalizioak eta elkarteak sortzea gizarte zibileko erakundeen eta EBko eskubideekin eta balioekin lotutako gaietan funtsezkoak diren beste eragile batzuen artean.

- Auzi estrategikoari buruzko prestakuntza-, sentsibilizazio-, elkarren arteko truke- eta ikaskuntza-ekintzak. Auzi estrategikoko ekintzak, instantzia judiziala edo administrazioko ekintzak edo prozesu legal edo judizial bat dakarren beste edozein ekintza deialdi honetatik kanpo daude berariaz, eta ezin izango dira finantzatu.

Ez da onartzen finantzaturako proiektuaren jarduerekin lotutako zuzeneko diru-sarrerak sortzea.

FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK

Deialdi honetan, proiektua finantzatzeko onartutako zenbatekoaren % 100 finantzatuko da. Beraz, proiektuaren aurrekontuak ez du beste emaila batzuen baterako finantzaketarik jaso beharko.

Edozein kontratazio, erosketa, lankidetzak edo zerbitzu-prestazio Espainiako legediaren arabera egin beharko da.

Honako gastu-kontzeptu hauek finantza daitezke (gastu hautagarriak):

- ✓ Kontrataturako langileen gastuak (nominak, langileak eta enpresak Gizarte Segurantzari egindako ekarpena barne, eta PFEZ).
- ✓ Jarduerak egiteko alokairu-gastuak.
- ✓ Jarduerak egiteko beharrezkoak diren joan-etorri-, ostatu- eta mantenu-gastuak. Europar Batasunetik kanpoko lekualdatze-, ostatu- edo mantenu-gastuak ezingo dira finantzatu deialdi honen barruan.
- ✓ Material suntsikorraren gastuak, hala nola fotokopien gastuak, bulegoko materiala, tailer eta ekitaldietarako materiala, etab.
- ✓ Ekipoak erosteko gastuak. Informatika-ekipoak edo bestelako ekipamenduak erosi behar izanez gero, proiektua inplementatzeko beharrezkoa dela azaldu behar da. Ekipoak alokatzeko gastuak sartzen dira.
- ✓ Kanpoko zerbitzuak kontratatatzeko gastuak, hala nola txostenak editatzeko, maketatzeko edo itzultzeko gastuak, aholkularitza-zerbitzuen gastuak. Kontrataturako beste zerbitzu batzuk ere jaso ahal izango dira, hala nola komunikazio-materialen diseinua, tailerrak edo ekitaldiak dinamizatzea, laguntza logistikoa edo jardueretarako catering- edo haurtzaindegi-zerbitzuak. Garrantzitsua da kontuan hartzea kanpoko zerbitzuen kontratazioa finantzatu ahal izango bada ere, erakunde eskatzaileek proiektua garatzea eta gauzatzea espero dela.
- ✓ Proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren zeharkako gastuak. Zeharkako gastutzat hartuko dira erakundearen funtzionamendu eta egiturari lotutako kostu orokorrak, jarduera jakin bati zuzenean egotzi ezin zaizkion arren, proiektua garatzeko beharrezkoak direnak. Zeharkako gastuek, gehienez ere, proiektuaren aurrekontu osoaren % 7 hartu ahal izango dute.

Finantzatu ezin diren kontzeptuak (gastu hautaezinak) hauek dira:

- ✗ Proiektuarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak.
- ✗ Beste dirulaguntza batzuetan aitortutako eta finantzatutako gastuak.
- ✗ Zergak, erakundeak kenduta edo itzulita baditu (BEZ). Erakundeak zenbateko horiek kendu, itzuli edo berreskuratu ahal izan baditu edo ahal baditu, ez dira hautagarriak izango. Era berean, ez dira hautagarriak izango erakundeko kideen zerga pertsonalei dagozkien zenbatekoak.
- ✗ Zor diren interesak, zorrak eta zorrarekin, gastu-hornidurekin eta abarrekin lotutako beste kargu batzuk.
- ✗ Gehiegizko edo alferrikako gastuak. Gehiegizkotzat jotzen da proposatutako helburua lortzeko behar den zenbatekoa neurri handi batean gainditzen duen gastua. Alferrikakotzat jotzen da proposatutako helburua lortzeko beharrezkoa ez den gastua. Gastu bat hautagarria den baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: beharrezkoa izatea eta proiektuarekin zuzenean lotuta egotea, haren xedearekin eta proiektuaren tamainarekin proportzionala izatea, eta zenbatekoa merkatuko prezioen arabera arrazoizkoa izatea. Bereziki, alferrikako edo gehiegizko gastutzat jo ahal izango dira ezinbestekoak ez diren ondasun edo zerbitzuak, baita proiektuarekin duten loturari dagokionez irismena edo prezioa behar bezala justifikatuta ez duten gastuak ere.
- ✗ Europar Batasuneko araudiaren arabera hautaezinak diren bestelako gastuak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ez dela finantzaketa bikoitza onartzen. Proiektuaren aurrekontuan sartzen den gastu bakoitza deialdi honetako bakarra eta eskusiboa izan behar da, eta ezin izango da aurretik finantzatu, ez eta aldi berean beste programa edo funts batzuen bidez eskatu ere, edozein motatakoak direla ere, eta, bereziki, Europako beste funts batzuen bidez. Muga horrek Europar Batasunaren CERV programak ezarritakoari erantzuten dio, berariaz debekatzen baitu Europako funtsekin finantzatutako proiektu batean baino gehiagotan gastu bera deklaratzeko. Arau hori betetzen ez bada, finantzaketa-akordioa bertan behera gera daiteke, eta jasotako dirua itzuli egin beharko da.

NOLA ESKATU FINANTZAKETA

Proiektu baterako finantzaketa-eskaera egiteko, 3 urrats egin behar dituzu:

1 URRATSA. Sakatu hemen: www.socialpower.es, eta bertan zaudenean:

- Zure erakundea dagoeneko erregistratuta baldin badago: sartu eremu pribatura egiaztagiriekin (pasahitza ahaztu baduzu hemen sakatuta berrezar dezakezu): "Pasahitza ahaztu zaizu?" Eremu pribatuaren barruan, atal bat ikusiko duzu deialdiaren formulariora sartzeko.

- Zure erakundea erregistratuta ez badago: **bete erregistroaren formularioa**. Ondoren, erregistroa berresteko mezu elektronikoa jasoko duzu, pasahitza ezartzeko eta zure SOCIAL POWER erregistroa baieztatzeko esteka batekin. Zure pasahitza ezarri ondoren, sartu eremu pribatua sartzeko kredentzialekin eta sartu "deialdiak" atalean.

2 URRATSA. Erantzun galdetegiko galderei eta aztertu zure erakundeak erabil dezakeen funtsa (1, 2 edo 3), gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa zein den jakiteko.

Deialdia iragartzen duen atalean sakatu ondoren, alde aurreko galdetegi bat zabalduko zaizu. Bertan, zure erakundeak baldintzak betetzen dituen egiaztatu ahal izango duzu, baita zure erakundeak zein funts erabili ahal izango duen aztertu ere.

Zure erakundeari esleitutako Funtsean soilik eskatu ahal izango duzu finantzaketa, deialdiaren oinarrietan zehaztutako baldintzen arabera. Gogoratu zein diren ESLEITUTAKO FUNTSAREN ARABERAKO FINANTZAKETA LORTZEKO BALDINTZAK. Nahi duzun guztietan egin ahal izango duzu galdetegi hau. "Eskaerarekin jarraitu" atalean sakatzean soilik erregistratuko dira zure erantzunak. Akatsen bat gertatuz gero, support@socialpower.es helbide elektronikoan jar zaitezke harremanetan.

3 URRATSA. Eskaeraren formularioa bete eta Funtsean arabera eskatutako dokumentazioa erantsi

Zure erakundeak aplikatu dezakeen funtsaren arabera, finantzaketa eskatzeko formulario bat irekiko zaizu. Gogoan izan formularioaren galderak deskarga ditzakezula [Word](#) formatuan eskaera alde aurretik prestatzeko, baina finantzaketa-eskaera SOCIAL POWERen webguneko zure eremu pribatua gaitutako online formularioaren bidez bakarrik aurkeztu ahal izango duzu².

Ez duzu inprimakia dena batera bete behar. Zatika bete eta gorde dezakezu, beste egun batean beste atal batzuekin jarraitu ahal izateko. SOCIAL POWERen webguneko zure eremu pribatutik egin ditzakezu behar dituzun zuzenketak formularioan; zure erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin sartu ahal izango zara bertara.

Inprimakia osorik betetzen amaitzen duzunean, erantsi beharrezko dokumentazioa (ikus erantsi beharreko dokumentuak BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA atalean). Eskaera aurkezteko, "Eskaera bidali" botoia sakatu behar duzu.

Eskabidea aurkeztutakoan, bidalketa berresteko mezu elektronikoa jasoko duzu, eta aurkeztutako inprimakia kontsultatu ahal izango duzu, bai eta zure eskaeraren egoera ere, zure eremu pribatutik.

² Eraginkortasun-arrazoiengatik, online formularioa gaztelaniazko bertsioan soilik egongo da eskuragarri. Hala ere, proposamenak edozein hizkuntza koofizialetan idatzi ahal izango dira.

Gogoratu finantzaketa-eskaera aurkezteko epea azaroaren 2ko 17:00etan amaitzen dela. **Une horretatik aurrera, eskaera-inprimakia ez da erabilgarri egongo.**

Zure eskaera aurkezteko azken unera arte ez itxarotea gomendatzen dizugu!

Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerarik, ezta beste bide batzuetatik aurkeztutakorik ere (e-mail). Online inprimakia betetzeko zailtasunak edo arazo teknikoak badituzu soporte@socialpower.es helbidera idatz dezakezu. Deialdiari edo oinarriei buruzko zalantzarik baduzu, helbide honetan jar zaitezke gurekin harremanetan: financiacion@socialpower.es.

PROIEKTUAK NOLA EBALUATUKO DIREN

Online eskaera-inprimakian emandako informazioa bakarrik hartuko da kontuan proiektua ebaluatzeko. Proiektuari buruz erantsitako beste edozein informazio osagarri ez da kontuan hartuko proiektua ebaluatzeko.

Proiektuak 3 irizpideren arabera ebaluatuko dira, eta proiektu bakoitzak gehienez 100 puntu lortu ahal izango ditu:

- 1) Garrantzia (40 puntu)
- 2) Kalitatea eta koherentzia (40 puntu)
- 3) Inpaktua (20 puntu)

Finantzaketa lortu ahal izateko, proiektuak 100etik 70 puntu lortu beharko ditu gutxienez. Jarraian, irizpide bakoitzaren barruan baloratuko diren elementuak eta horietako bakoitzean lor daitekeen gehieneko puntuazioa zehazten dira.

Garrantziaren irizpidea:

Irizpide honen gehienezko puntuazioa 100etik 40 puntukoa da. Finantzaketa eskuratu ahal izateko, proiektuek gutxienez 25 puntu lortu beharko dituzte irizpide horretan.

Proiektua erakundeak eskabidean hautatutako eskubideen agendako lehentasun tematiko batekin edo gehiagorekin duen lerrokatzea.	20 puntu
Proiektua garatuko den testuingurua identifikatzea eta proiektuak testuinguruaren arabera lantzen duen gizarte-problematikaren garrantzia.	5 puntu
Proiektuaren xede den kolektiboa edo pertsonak eta jasaten duten eskubide-urraketaren egoera deskribatzea eta ezagutzea. Proiektuak desberdintasunek eta diskriminazioak bereziki eragindako kolektiboekin lan egitea baloratuko da, hala nola emakumeekin, gazteekin, LGTBIQIA+ pertsonekin, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin, gutxiengoekin	5 puntu

SOCIAL POWER

CERV-2024-CITIZENS-VALUES

eta abarrekin. Proiektuaren xede diren kolektiboak gidatzen dituzten erakundeak positiboki baloratuko dira.	
Erakundeak proiektuaren jarduera-esparruko gizarte-problematikan eta kolektiboen eta pertsonen eskubideen urraketa-egoeran duen esperientzia.	7 puntu
SOCIAL POWERen deialdien irismena eta lurralde-oreka handitzeko, 1.000.000 biztanletik beherako udalerri batean dauden erakundeei puntuazio gehigarria emango zaie.	3 puntu

Kalitate- eta koherentzia-irizpidea:

Irizpide honen gehieneko puntuazioa 100etik 40 puntukoa da. Finantzaketa eskuratu ahal izateko, proiektuek gutxienez 3 puntu lortu beharko dituzte aurrekontuaren azpikriterioan.

Proiektuaren logikaren argitasuna eta helburuen, espero diren emaitzen, aurreikusitako jardueren eta egiaztapen-iturrien identifikazio argia.	10 puntu
Genero-justiziaren ikuspegia txertatzea, ikuspegi intersektional batetik.	10 puntu
Estrategia sendoa eta bideragarria, proiektuak aurreikusitako jarduerak aurreikusitako egikaritze-aldian gauzatzeko.	10 puntu
Proiektua inplementatzeko aurrekontu egokia eta baliabideen kudeaketa eraginkorra.	10 puntu

Inpaktu-irizpidea:

Irizpide honen gehieneko puntuazioa 100etik 20 puntukoa da.

Ikuspegi parte-hartzailea eta inklusiboa, funtsezko eragileak eta eskubideak urratzen zaizkien kolektibo eta pertsonak inplikatzeko, beren eskubideak erreklamatu eta defendatu ahal izan ditzaten.	10 puntu
Proiektuak inpaktu positiboa eta jasangarria sortzeko duen ahalmena, egindako ekintzen zuzeneko eta berehalako irismenetik harago.	5 puntu
Proiektuaren inplementazioan modu eta ikuspegi berritzaileak txertatzea, gizarte-berrikuntza barne.	5 puntu

NORK EBALUATUKO DITU PROIEKTUAK?

Aurkeztutako proposamenen ebaluazioa Oxfam Intermoneko talde ebaluatzaile batek egingo du. Talde hori gizarte-erakundeekin eta deialdi honetako funtsezko agendekin lan egiten esperientzia duten pertsonak osatuko dute. Talde horrek sakon baloratu du proposamen bakoitza, eskaera-formularioan jasotako proposamenaren edukia eta ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta.

Gainera, SOCIAL POWERen elementu berritzaileetako bat jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna automatikoak txertatzea da, inplementazio- eta monitorizazio-prozesu eraginkorrak eta koherenteagoak ziurtatzeko helburuarekin bat etorritik. Deialdi honetan, ebaluazio-tresna automatikoak erabiliko dira, aurkeztutako proposamenak balioesten laguntzeko. Zehazki, adimen artifizial sortzailean oinarritutako tresna bat txertatuko da plataforman. Tresna horrek proposamenak aztertuko ditu alde aurretik deialdian ezarritako ebaluazio-irizpideetatik abiatuta, eta lehen balorazio orientagarria eskainiko du, prozesuaren koherentzia eta arintasuna bermatzen lagunduko duena.

Analisi automatizatu horrek ez du inola ere talde ebaluatzailearen ebaluazioa ordeztuko; aitzitik, Oxfam Intermoneko barne-taldeak egindako berrikuspen egituratu batekin osatuko da. Prozesu osoak giza ikuskapen egokia izango du, Adimen Artifizialaren Europako Erregelamenduak (2024/1689 EB Erregelamendua) ezartzen duen bezala.

EMAN BEHARREKO FINANTZAKETAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEA

Proiektuak baloratzeko prozesuan, proposamen teknikoari dagokionez aurkeztutako aurrekontuaren koherentzia eta aurrekontuan sartutako gastuen hautagarritasuna aztertu eta ebaluatuko dira. Azterketa honek helburu bikoitza du: alde batetik, gastu guztiak hautagarriak direla egiaztatzea eta aurrekontua inplementaziorako baliabideak erabiltzeko egokia eta eraginkorra den baloratzeko. Bestetik, proiektua hautatuz gero, finantzatu beharreko zenbateko zehatza ezartzea.

Aurrekontua inplementaziorako baliabideak erabiltzeko egokia eta eraginkorra den zehazteko, honako hau baloratu da:

- Aurrekontuaren egitura egokia izatea, eta aurreikusitako jarduerekin, emaitzekin eta proiektuaren helburuarekin bat etortzea. Gastuek behar bezain zehaztuta egon behar dute balorazio hori egiteko.
- Gastuak arrazoizkoak eta justifikatuak izatea proiektua egiteko.
- Gastuak proiektua gauzatzeko epean sartuta egotea.
- Gastuak oinarrietan ezarritakoaren arabera hautagarriak izatea.

Finantzatu beharreko zenbateko zehatza ezartzeko, proiektua hautatua izanez gero, honako egiaztapen hauek egingo dira, eta, hala badagokio, dagozkion doikuntzak aplikatuko dira finantzatu beharreko aurrekontuan:

- Oker bikoiztutako gastuak ezabatu egingo dira, halakorik balego.

- Proiektua gauzatzeko alferrikakoak diren edo beharrezkoak ez diren gastuak kenduko dira, halakorik balego.
- Merkatuko ohiko prezioarekin alderatuta, gehiegi balioetsitako edo gutxietsitako gastu-kontzeptuak baleude, zuzenketa edo doikuntza proposatuko da.
- Oinarrietan ezarritakoaren arabera hautagarriak ez diren gastuak kenduko dira.

Erakundeak eskatutako zenbatekoari dagokionez finantzatu beharreko aurrekontua doitu behar bada, edo argibiderik behar izanez gero, ebaluazio-taldea erakundearekin harremanetan jarriko da balorazio-prozesuan zehar.

NOLA HAUTATUKO DIRA PROIEKTUAK?

Ebaluazio-prozesuan 70 puntutik beherako puntuazioa lortu duten proiektuak ez dira aintzat hartuko finantzatu ahal izateko. Finantzatu beharreko proiektuen azken zerrenda 70 puntu edo gehiagoko proiektuen zerrendatik abiatuta egingo da.

Lehenik eta behin, hautaketa lortutako puntuazioaren eta finantzaketa-tarte bakoitzerako eskuragarri dauden funtsen arabera egingo da (ikusi DEIALDIAREN AURREKONTU-ZUZKIDURA); horiek puntuazioaren arabera esleituko dira, handienetik txikienera, deialdiaren eskubideen agenda bakoitzean aurkeztutako proiektuen artean. Halaber, deialdiko 3 eskubide-agenden artean oreka egon dadin zainduko da.

Bi eskabideren edo gehiagoren arteko puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, honako irizpide hauei jarraikiz ebatziko da berdinketa, hurrenkera honetan:

- 1.- Finantzaketa lortzeko zailtasun handienak dituzten lurraldeetan kokatutako erakundeak, batez ere landa-eremuetan edo urrunekoetan.
- 2.- Berdinketak jarraituz gero, garrantziaren irizpidean lortutako puntuazio handiagoa hartuko da kontuan.
- 3.- Berdinketak jarraituz gero, kalitatearen irizpidean lortutako puntuazio handiagoa hartuko da kontuan.
- 4.- Berdinketak jarraituz gero, inpaktuaren irizpidean lortutako puntuazio handiagoa hartuko da kontuan.

Finantzatzeko onartutako zenbatekoaren % 100 finantzatuko da (ikusi EMAN BEHARREKO FINANTZAKETAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEA) hautatutako proiektu bakoitzerako. Gogoratu, gorago adierazi bezala, proiektuaren aurrekontuak ez duela beste emaille batzuen baterako finantzaketarik jaso beharko. Proiektuak bere kabuz nahikoa eta koherentea izan beharko du, eta SOCIAL POWERek emandako finantzaketarekin osorik garatu ahal izango da. Horrek ez du eragozten, proiektuaren gauzatzean zehar, beste ekimen batzuekin lankidetzak edo sinergiak sortzea, betiere horiek ez badakarte finantzaketa bikoitzik eta ez badute proiektuaren gauzatzea baldintzatzen.

Azkenik, Oxfam Intermonek beretzat gordetzen du deialdi honetan erabilgarri dauden funts guztiak ez esleitzeko eskubidea, jasotako proposamenen balorazioaren arabera.

ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEAK ETA IKASKUNTZA

SOCIAL POWERen esparruan, parte hartzen duten erakundeek proiektuak formulatzeari dagokionez beren gaitasunak indartzeko diseinatutako prestakuntza- eta ikaskuntza-baliabideetarako sarbidea izango dute. Baliabide horien artean daude formatu eskuragarri eta malgu batean prestatutako prestakuntza-materialak, edozein unetan kontsultatu ahal izango direnak, eta besteak beste honako alderdi nagusi hauek landuko dituztenak: proiektuen formulazioa, arriskuen kudeaketa edo gizarte-berrikuntza. Prestakuntza-eduki horietarako sarbidea SOCIAL POWERen laguntza-ikuspegiaren parte da; ikuspegi horren helburua etengabeko ikaskuntza erraztea eta gizarte zibileko erakundeen sarea indartzea da. Baliabide hauetara [hemen](#) eta [hemen](#) klik eginez sar zaitezke.

EMAITZA JAKINARAZTEA, ONARTZEA ETA FINANTZAKETA ORDAINTEA

2027ko urtarrila eta otsaila artean, erakundeei jakinaraziko zaie beren proiektua hautatua izan den eta lortutako finantzaketaren zenbateko zehatza.

Lankidetzak-Akordioa formalizatzeko eta, beraz, finantzaketa emateko, ezinbesteko baldintza izango da erakundeak PIC kodea (Participant Identification Code) izatea. PICa Europako Batzordeak erabiltzen duen identifikatzaile bakarra da, Europar Batasunak finantzaturako programetan parte hartzen duten erakundeak erregistratu eta identifikatzeko. Kode hori ez badu, erakundeak Europar Batasuneko Parte-hartzaileen Erregistroaren bidez eskatu beharko du, honako esteka honetan eskuragarri dagoena: <https://ec.europa.eu/info/funding-tenders/opportunities/portal/screen/how-to-participate/participant-register>

Erakundearen PIC kodea Lankidetzak-Akordioan jaso beharko da.

Aukeratuak izan diren erakundeek lankidetzak-hitzarmena sinatuko dute Oxfam Intermónekin. Alderdi guztiek hitzarmena sinatutakoan, lehen ordainketa egingo da, hitzarmenean zehaztutako kopuruaren arabera. Ezinbesteko baldintza izango da erakundeak aurretik, eta Oxfam Intermónek adierazitako epearen barruan, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu ez zuen dokumentazio guztia aurkeztu izana; bestela, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

GARDENTASUNA, ZUZENKETA ETA ALEGAZIOAK

Erakundeek beren eskabidearen balorazioa ezagutu ahal izango dute. Horretarako, deialdiaren emaitzen jakinarazpenean adieraziko dira balorazioa eskuratzeko jarraitu beharreko urratsak.

Erakunde batek bere eskabidearen ebaluazio-prozesuan behar bezala egiaztatutako akats material bat antzematen badu, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu emaitzen jakinarazpenean zehaztutako epearen barruan, bertan adierazitako bidearen bidez. Alegazio horien xede bakarra akats materialak zuzentzea izango da, eta ez dute ekarriko ebaluazioaren berrikuspen orokorra egitea, ez eta beste ebaluazio-prozesu bat irekitzea ere.

Azkenik, ebaluazio-prozesuan zehar, Oxfam Intermón erakunde eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, aurkeztutako dokumentazioa argitzeko, zuzentzeko edo osatzeko beharrezkoa denean. Horretarako, epe bat emango zaie erakundeei antzemandako akatsak zuzendu ahal izan ditzaten.

ALDERDIEN KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK

Deialdi honen bidez finantzatutako proiektuak dituzten erakundeei eta Oxfam Intermonek lankidetzaz-esparru bat ezarriko dute, konfiantza eta elkarrekiko errespetuan oinarritua eta harremanen horizontaltasunaren ikuspegitik arautua.

Lankidetzaz-esparru hori Hitzarmen bat sinatzean gauzatuko da, eta bertan zehaztuko dira, besteak beste, bi alderdiek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta betebeharrak. Jarraian, konpromiso garrantzitsuenak deskribatzen dira:

Oxfam Intermonek, besteak beste, konpromiso eta betebeharrak hauek hartuko ditu bere gain:

- Deialdi honen esparruan hautatzen diren proiektuen onartutako aurrekontuaren % 100 finantzatzea, bi aldeek ados jarrita sinatuko duten lankidetzaz-hitzarmenean jasotako baldintzetan.
- Proiektuaren hasieran erakundeei hasierako ordainketa bat egitea, alderdien artean sinatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
- Finantzatutako proiektuaren inplementazioari buruzko jarraipena egitea erakundearekin, modu birtualean zein presentzialean, horizontaltasunaren eta elkarrekiko konfiantzaren ikuspegitik eta etengabeko hobekuntzarako ikaskuntza sustatuz. Jarraipenak, hala dagokionean, proiektuaren ezarpenaren alderdi teknikoak zein haren kudeaketarekin lotutako alderdiak jaso ahal izango ditu, baita proiektuaren finantza-jarraipena ere.
- SOCIAL POWERen esparruan egiten diren eta erakundearentzat interesgarriak izan daitezkeen ikaskuntza kolektiboko eta sareko laneko jardueri eta ekitaldiei buruzko informazioa ematea, eta gune horietan parte har dezaten sustatzea.
- SOCIAL POWERen esparruan, finantzatutako proiektuen eta erakundeak finantzatutako proiektuaren inplementazioan lortutako ekintzen eta emaitzen berri ematea, eta, adosten denean, erakundeari laguntza eta aholkularitza ematea proiektuaren komunikazio-alderdietan.

Proiektua finantzatu zaien erakundeek, besteak beste, konpromiso eta betebeharrak hartu beharko dituzte beren gain:

- **Proiektua aurrera eramatea, une oro** Europar Batasunaren balioak errespetatzen direla **bermatuz**.
- Oxfam Intermoni proiektuaren bilakaeraren berri ematea eta Oxfam Intermonek proiektuari egindako jarraipen-bisitak erraztea eta horietan parte hartzea. **Bereziki, proiektuaren gauzatzean eta/edo aurreikusitako emaitzen irismenean eragina izan dezakeen edozein gertaera edo egoeraren berri ematea.**
- Oxfam Intermonek edo EBk eskatzen duten informazio guztia ematea, ekintzak irauten duen bitartean edo egin ondoren, **proiektua inplementatu dela eta lankidetzatza-hitzarmenaren esparruan betebeharrak bete direla egiaztatzeko xedez. Zehazki, aurreikusitako jarduerak egiteari eta emaitzak lortzeari buruzko dokumentazioa eta beharrezko informazio-baliabideak aurkeztea, eta proiektua amaitu eta gehienez ere hilabete batera proiektua gauzatzeari buruzko azken txostena aurkeztea. Amaierako txostena proiektua gauzatzeari eta emaitzak lortzeari buruzko narrazio-formatuan egingo da, eta dagozkion egiaztapen-iturrien dokumentuak erantsiko dira.**
- Fakturei, ordainketei, nominei eta beste gastu batzuei (Gizarte Segurantzak, PFEZ, BEZ, etab.) buruzko dokumentazioa gordetzea eta zaintzea, gutxienez 10 urtez, **proiektua amaitzen denetik zenbatzen hasita, indarrean dagoen legediaren arabera. Era berean, proiektuaren gastuak erakundearen kontabilitatean jaso behar dira. Erakunde batek ez badu 10 urterako zaintza hori ziurtatzeko gaitasunik, dokumentazio hori Oxfam Intermoni bidali ahal izango dio, eta hark bermatuko du zaintza hori.**
- Finantzaturako proiektuan parte hartuko duten pertsonen hautaketan edozein interes-gatazka saihestea, baita datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legedia betetzea ere..
- Finantzaturako ekintzetan Europar Batasunaren ikusgarritasuna ziurtatzeko, **lortutako emaitzen komunikazio-jardueretan zein finantzaketa horri esker eskuratutako ekipoetan Europar Batasunaren ikurra eta bandera sartzeko konpromisoa hartuz. Logotipoaz gain, proiektuaren komunikazio- edo hedapen-jarduerak orok, edozein gai eta edozein euskarritan (digitala, offline, ikus-entzunezkoa, etab.) iritzi edo jarrera politikoak jasotzen baditu edo eragin publikoko edo sentsibilizazioko ekintzen parte bada, nahitaez honako testu edo ohar hau jaso beharko du:**



**Cofinanciado por
la Unión Europea**

Europar Batasunak finantzatua. Adierazitako iritziek eta ikuspuntuek egileak/egileak bakarrik konprometitzen ditu/dituzte, eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunekoak edo Herriartasuna, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak Programakoak (EACEA). Ez Europar Batasuna ez EACEA ezin dira haien erantzuletzat hartu.

Oxfam Intermonek laguntza emango dio erakundeari EBren ikusgarritasuna behar bezala aplikatzeari buruzko zalantzak argitzeko.

FINANTZAKETA PROZESUAREN EGUTEGIA ETA DATA NAGUSIAK

Ondoren, erakundeen jarduerak finantzatzeari dagokionez prozesuaren funtsezko daten laburpena aurkezten da, kontuan hartu behar duzuna:

Data nagusiak	Prozesua
2026ko irailak 1	Deialdia irekitzea
2026ko azaroak 2	Deialdia ixtea eta eskabideak jasotzen amaitzea. Epea azaroaren 2an amaituko da, 17:00etan (Espainiako penintsulako ordua).
2027ko urtarrila-otsaila	Erakundeei proiektuen hautaketaren emaitzak jakinaraztea.
2027ko otsaila	Hautatutako erakundeen eta Oxfam Intermonen arteko finantzaketa-hitzarmenak egitea eta sinatzea
2027ko martxoa-ekaina	Proiektuen finantzaketaren lehen ordainketa erakundeei egingo zaie, proiektuaren hasieraren arabera.
2027ko martxoak 1	Data horretatik aurrera has daitezke finantzatutako proiektuak.
2027ko otsaila-martxoa (zehaztu beharreko data)	Bilera informatiboa finantzatutako erakundeekin, jarraipen- eta laguntza-prozesuei buruz.
2027ko martxoaren 1etik abenduaren 31ra	Proiektuaren jarraipena egitea, formatu birtualean eta/edo presentzialean, adostutakoaren arabera.
2027ko abenduak 31	Finantzatutako proiektuak amaitzeko azken eguna.
2028ko urtarrilak 31	Azken txosten narratiboa eta jarduerak gauzatu direla eta aurreikusitako emaitzak lortu direla egiaztatzen duten frogagiriak aurkezteko azken eguna. 2027ko abenduaren 31 baino lehen amaitutako proiektuen kasuan, txostena proiektua amaitu eta hilabetera entregatu beharko da.

SOCIAL POWER-I BURUZ

SOCIAL POWER [Oxfam Intermón](#) eta [Political Watch](#)-en ekimena da, 2029ko otsailera arte egingo dena, gizarte zibil antolatuak Espainian desberdintasunen eta diskriminazioaren ondorioak gehien jasaten dituzten pertsonen giza eskubideen defentsan, babesean eta sustapenean egiten duen lana indartzen laguntzeko.

DEIALDI HONI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO

Deialdi hau Europar Batasunak abian jarritako «Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak» (CERV) programaren barruan kokatzen da. CERV programaren helburua da zuzenbide-estatuan finkatutako eskubide demokratiko, berdintasunezko eta inklusiboetan oinarritutako gizarte irekiak sostengatzea eta garatzea. Horren barruan dago gizarte zibil dinamiko eta ahaldundua, pertsonen parte-hartze demokratikoa, zibikoa eta soziala sustatzen duena, eta Europako gizartearen aniztasun aberatsa lantzen duena, gure balio komunetan, gure historian eta gure memorian oinarrituta.

Europar Batasuneko CERV programari buruz gehiago jakin nahi baduzu, klikatu [hemen](#)

KONTAKTUA

Oinarriei buruzko edozein zalantza izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke helbide elektroniko honen bidez: financiacion@socialpower.es